**UDAL ZERGA ETA TASEN ORDAINTZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKO.**

Aurreko ekitaldi ekonomikoan Irurako udalerrian ura, zaborra, saneamendua eta Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren ordainketari aurre egiteko herritarrei dirulaguntzak emateko arautuko duen Ordenantza Arautzailea onartu zen eta horrekin batera baita 2020rako deialdia ere.

Udalak datozen urteetako etengabeko diru laguntza ezarri nahi duela eta kontuan hartuta, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera:

"Tokiko korporazioen diru-laguntzen arau-oinarriak onartu behar dira aurrekontuen exekuzio oinarrien barruan, diru laguntzen arau orokor baten bidez edo diru-laguntza mota desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez"

Eta hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- "*Irurako udalerrian ura, zaborra, saneamendua eta Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren ordainketari aurre egiteko herritarrei dirulaguntzak emateko arautuko duen Ordenantza Arautzailea*"ri

En el ejercicio económico anterior se aprobó las Bases Reguladoras de las ayudas para el pago de las tasas de agua, basura y saneamiento y el Impuesto de Bienes Inmuebles a los vecinos del municipio de Irura y así mismo la convocatoria para 2020.

Considerando que este Ayuntamiento tiene la intención de establecer la subvención con carácter permanente en los próximos ejercicios y que de acuerdo con lo dispuesto en el art.17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

"Las bases reguladoras de las subvenciones de la corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvención."

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1.- Aprobar inicialmente la "*Ordenanza Reguladora para la concesión de ayudas para el pago de las tasas de agua, basura y saneamiento y el Impuesto de Bienes Inmuebles a los vecinos del municipio de Irura*".

hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunak izateko aukera ematea, 30 egun baliodunako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

3.- Ez bada kexarik eta iradokizunik aurkezten, espedientea behin betiko onartzea da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

2.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devengará definitivo y se obrará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

**LAUGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALERRIAN HAURRAK ESKOLAN HH, LH edo DBH MATRIKULATUTAKO FAMILIEI IRTEERATAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKO.**

Ikusita gai honetan nahiko beharrak daudela Udal honek nahi du ekonomikoki laguntzea Haurrak HH, LH edo DBHn matrikulatuta dauden Irurako udalerriko familiei irteerak egiteko eta horrekin batera baita 2020rako deialdia ere.

Udalak datozen urteetako etengabeko diru laguntza ezarri nahi duela eta kontuan hartuta, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera:

“Tokiko korporazioen diru-laguntzen arau-oinarriak onartu behar dira aurrekontuen exekuzio oinarrien barruan, diru laguntzen arau orokor baten bidez edo diru-laguntza mota desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez”

Eta hori ikusita Udalbatzak aho

Es voluntad de este Ayuntamiento dadas las necesidades detectadas favorecer económicamente las ayudas para excursiones a las familias del municipio de Irura que tienen matriculado/as a niños/niñas en la escuela en primaria, secundaria y ESO y así mismo la convocatoria para 2020.

Considerando que este Ayuntamiento tiene la intención de establecer la subvención con carácter permanente en los próximos ejercicios y que de acuerdo con lo dispuesto en el art.17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

“Las bases reguladoras de las subvenciones de la corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvención.”

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo

batez hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- "*Haurrak HH, LH edo DBHn matrikulatuta dauden Irurako udalerriko familiei irteeretarako dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza*"ri hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunak izateko aukera ematea, 30 egun baliodunneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

3.- Ez bada kexarik eta iradokizunik aurkezten, espedientea behin betiko onartzea da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

siguiente:

ACUERDO:

1.- Aprobar inicialmente la "*Ordenanza Reguladora para la concesión de ayudas para el pago de excursiones a las familias del municipio de Irura que tienen matriculado/as a niños/niñas en la escuela en primaria, secundaria y ESO*".

2.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devengará definitivo y se obrará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

**BOSGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALERRIAN HAURRESKOLA PATZUERGOAN MATRIKULATUTAKO HAURREN FAMILIEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honek haurreskoletan haurren matrikulazio errazteko, Irurako udalerrian Haurreskolak Patzuergoan matrikulatutako haurren familiei dirulaguntzak emateko Araudiaren Oinarriak onartu ziren eta horrekin batera baita 2020rako deialdia ere.

Udalak datozen urteetako etengabeko diru laguntza ezarri nahi duela eta kontuan hartuta, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera:

Este Ayuntamiento para favorecer la inscripción de niños en las haurreskolas quiere establecer ayudas económicas a las familias que tienen matriculado/as a niños/niñas en el Consorcio Haurreskolak en el municipio de Irura y así mismo la convocatoria para 2020.

Considerando que este Ayuntamiento tiene la intención de establecer la subvención con carácter permanente en los próximos ejercicios y que de acuerdo con lo dispuesto en el art.17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

"Tokiko korporazioen diru-laguntzen arau-oinarriak onartu behar dira aurrekontuen exekuzio oinarrien barruan, diru laguntzen arau orokor baten bidez edo diru-laguntza mota desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez"

Eta hori ikusita Udalbatzak bost boto alde (EH Bildu) eta 4 aurka(EH Bildu) hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- *"Irurako udalerrian Haurreskolak Patzuergoan matrikulatutako haurren familiei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza"ri* hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunak izateko aukera ematea, 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

3.- Ez bada kexarik eta iradokizunik aurkezten, espedientea behin betiko onartzea da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

"Las bases reguladoras de las subvenciones de la corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvención."

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de 5 votos a favor(EH Bildu) y 4 en contra (EAJ/PNV),aprobar el siguiente:

ACUERDO:

1.- Aprobar inicialmente la *"Ordenanza Municipal para la concesión de subvenciones a las familias que tienen matriculado/as a niños/niñas en el Consorcio Haurreskolak en el municipio de Irura"*

2.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devengará definitivo y se obrará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

Eztabaida: Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du, Haurreskola Patzuergoak dirulaguntza ematen duela 18.000 euro baino ez dutela familiei eta gai hau ez dela udaleko konpetentzia.
Alkateak erantzun du ongi iruditzen zaiola laguntza hori baina berak nahi dutela horretarako dauden laguntzak osatzea.

**SEIGARREN GAIA**
**IRURAKO UDALERRIAN DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA IZAN ETA TRATAMENDUA BEHAR DUTEN PERTSONEN FAMILIEI EDO**

**INTERESATUEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Aurreko ekitaldi ekonomikoan Irurako udalerrian desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak emateko Araudiaren Oinarriak onartu ziren eta horrekin batera baita 2020rako deialdia ere.

Udalak datozen urteetako etengabeko diru laguntza ezarri nahi duela eta kontuan hartuta, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera:

"Tokiko korporazioen diru-laguntzen arau-oinarriak onartu behar dira aurrekontuen exekuzio oinarrien barruan, diru laguntzen arau orokor baten bidez edo diru-laguntza mota desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez"

Eta hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- "*Irurako udalerrian desgaitasuna/mendekotasuna izan eta tratamendua behar duten pertsonen familiei edo interesatuei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko Udal Ordenantza*"ri hasierako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunak izateko aukera ematea, 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

3.- Ez bada kexarik eta

En el ejercicio económico anterior se aprobó las Bases Reguladoras de las ayudas para la concesión de subvenciones a las familias o interesados de personas discapacitadas o con dependencia que necesiten tratamiento en el municipio de Irura y así mismo la convocatoria para 2020.

Considerando que este Ayuntamiento tiene la intención de establecer la subvención con carácter permanente en los próximos ejercicios y que de acuerdo con lo dispuesto en el art.17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

"Las bases reguladoras de las subvenciones de la corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvención."

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1.- Aprobar inicialmente la "*Bases para la concesión de subvenciones a las familias o interesados de personas discapacitadas o con dependencia que necesiten tratamiento en el municipio de Irura*"

2.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- En el caso de que no se presenten

iradokizunik aurkezten, espedientea behin betiko onartzea da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devengará definitivo y se obrará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

## ZAZPIGARREN GAIA
## "RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA" EH BILDUk AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

### EH-BILDUk aurkeztutako mozioa:

"Egun gutxi barru, 2020ko otsailaren 27an, Saharar Estatua (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa – RASD) sortu zeneko 44. urteurrena ospatuko du Saharar Herriak.

Mendebaldeko Sahara okupatu eta Saharar Herriak borrokan 44 urte eman ondoren, egoera konpondu gabe dago oraindik, eta lurralde okupatuetan bizi diren biztanleek zein Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek beren giza eskubideak urratuta dituzte, eta Marokoren okupazioaren pean edo errefuxiatu-eremuetan bizitzera behartuta daude.

Testuinguru horretan, Nazio Batuek Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren arteko elkarrizketak desblokeatzeko emandako urratsak (duela zazpi urtetik gora geldirik) zapuztu egin dira idazkari nagusiaren ordezkari berezi Köhler jaunaren dimisioarekin, Marokok etengabeko xantaia eta jarrera intrantsigentea izan dituelako eta NBEko Segurtasun Kontseiluko kide diren herrialdeek gaiari heldu ez diotelako.

Oso une konplexua da, bide baketsua mehatxatzen duena, saharar herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahuldu nahi duena, eta egintza burutuen politika bat inposatu nahi duena. Egoera hori ez dator bat Europako Justizia Auzitegiaren epaiarekin. Epai horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararekiko duen subiranotasuna ez du aitortzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ez eta, oro har, NBEk ere".

Marokoko Erresumak aldebakarrekotasunez bere itsas eremua mugatzen duten bi lege parlamentario onartzea sustatu du; horrekin, NBEren Itsasoko Zuzenbideari buruzko Konbentzioan ezarritako urratu du, eta jurisdikzio-urak bere ur-eremuen 12 miliatara, Eremu Ekonomiko Eskusiboko 200 milietara eta Plataforma kontinentaleko 350 miliatara zabaldu ditu, kontuan izanik arau horrek Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duela eta bereziki larria dela Mendebaldeko Saharako Lurralde Itsasoa barne hartzean.

Erabaki horrek ezegonkortasun- eta probokazio-faktore bat gehiago sartzen du Mendebaldeko Saharako gatazkan, eta ez ditu kontuan hartzen sahararrek beren lurraldean aitortuta dituzten eskubide legitimoak, eta, gainera, areagotu egiten da beren aberastasunak eta baliabide naturalak espoliatuta.

Gaur irekitzen den zikloan, herrialde okupatzaileak, marokok, nazioarteko zuzenbidearekiko burutzen dituen ageriko urraketen aurrean eta Marokorekin dagoen kolaborazio politiko eta ekonomikoaren aurrean ezer ez egitea ez daiteke zigorrik gabe geratu. Gaur, inoiz baino gehiago, Espainiari eta Europako Batasunari gatazkan dituzten erantzukizunei aurre egiteko eskatzeko unea da. Bereziki estatu espainiarrari dagokionez, deskolonizazioaren zain dagoen Afrikako azken lurraldearen, Mendebaldeko Sahararen, herrialde administratzailea baita.

Halaber, oso beharrezkoa da oraindik ere hainbat misio instituzionalen lana, okupatutako lurraldeetan saharar biztanleekiko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideen urraketa larriak egiaztatzeko, eta Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen errespetua bete daitezen exijitzeko.

**Horregatik guztiagatik:**

**BERRESTEN DUGU** Fronte Polisarioa dela saharar herriaren ordezkari zilegi eta bakarra, NBEk eta nazioarteak horrela aitortuta.

**SALATZEN DUGU**, berriro ere, Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpokoa dela, eta ezin duela Saharar Herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzen duen ondorio juridiko edo politikorik izan.

**Egiaztatzen dugu** Mendebaldeko Sahara Nazioarteko Zuzenbidearen mende dagoen lurralde ez-autonomoa dela, eta ez dela inoiz Marokoko Erresumakoa izan. Horregatik Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa eteteko, eta Saharar Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko exijitzen diogu.

Espainia Mendebaldeko Sahararen "zuzenbidezko potentzia administratzaile" dela adieraziz Auzitegi Nazionalak emandako autoa erreferentzia dela **IRIZTEN DIOGU**.

**EXIJITZEN DIOGU** Marokoko Erresumari Saharar preso politikoak eta kontzientzia-presoak berehala askatzea, eta kontrolatzen dituen espetxeetan giza eskubideen urraketak bertan behera uztea, eta presoen osotasun fisiko eta psikikoa bermatzea. Eta preso horien familiekiko elkartasuna helaraztea.

**GUZTIZ GAITZESTEN DUGU** Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan bere itsas eremua ezartzeko hartutako alde bakarreko erabakia; izan ere, erabaki horrek NBEren Itsasoaren Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa, Marokok onartua, urratzen du.

**SALATZEN DUGU** Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan baliabide naturalez egindako espoliazioa, nahiz eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak horren inguruko epaiak eman dituen, eta inguru horretan diharduten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta Saharako herritarren eskubideak errespetatzeko exijitzen diegu. Interesdunei (enpresei eta herrialdeei) Saharako Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

**ESKATZEN DIEGU** Nazio Batuei Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta behin betikoa luzamendu gehiagorik gabe susta dezatela. Konponbide hori gauzatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar da erreferendum bidez. Eta, halaber, NBEren Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.

**BERRIRO ESKATZEN DUGU**, Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dituen funtzioak eta zereginak zabaldu behar dituela. Horregatik, Nazio Batuei **ESKATZEN DIEGU** Misioari ahalmena eman diezaiola Marokok okupatutako lurraldeetan sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.

**EXIJITZEN DIOGU** Europar Batasunari bete dezala Marokoko Erresumarekin adostutako Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin (UNMS) dugun lankidetza politikoa **INDARTZEN DUGU**, errefuxiatuen kanpamentuetan duten funtsezko eginkizun erabakigarriagatik. Eta, aldi berean, emakume horien ikusezintasun-egoerari buruzko deia egiten dugu, giza eskubideen urraketaren biktima izan diren eta Marokok okupatutako lurraldeetan desagertutako emakumeei aipamen berezia eginez.

**ESKATZEN DIEGU** Euskal erakunde publikoei jarrai dezatela ematen eta areagotu dezatela laguntza solidario eta humanitarioa, bai Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatutako biztanleei, bai lurralde okupatuetako sahararrei.

**Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari dei egiten diogu hauetarako:**

1.- Madrilgo Akordioak erabat deusez **DEKLARATU DITZALA**, eta deklarazio horrekin bat etorriz, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak susta ditzala.

Espainiako Estatuak ofizialki aitortzen du Madrilgo Akordioak, 1975eko azaroaren 14an sinatuak, ez zuela transferitu lurraldearen gaineko subiranotasuna, eta sinatzaileetako bakar bati ere ez ziola eman herrialde administratzailearen izaera; Espainiak, berez, ezin du alde bakarretik transferitu izaera hori. Beraz, ez du eraginik izango mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko zain dagoen lurralde ez-autonomo gisa duen nazioarteko izaeran.

2.- Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkaritzari estatus diplomatikoa **EMATEKO**, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk horrela onartuta. Halaber RASD aitor dezala.

3.- Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako egoera humanitario larria dela-eta, lankidetza eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatuen kanpamentuetan, bai lurralde liberatuetan, kezkaz ikusten baita Espainiako Lankidetza Agentziak azken urteotan egindako ekarpenak murriztu izana. Era berean, Mendebaldeko Saharentzako Europako funtsak gehitu behar direla azpimarratu behar da.

4.- **DEKLARA DEZALA** enpresa publiko eta pribatuek nahitaez errespetatu eta aplikatu behar dituztela mendebaldeko Saharako lurraldean, itsasoan eta lehorrean baliabide naturalak esploratzeko eta ustiatzeko oinarria ezartzen duten EBko Justizia Auzitegiaren epaiak; esplorazio eta ustiaketa hori Saharar Herriarekin adostu behar dira.

5.- **EXIJI DIEZAIOLA** Marokoko Erresumari Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzea eta sahararrek jasaten dituzten eskubide-urraketak etetea. Eta, halaber, eskatzen diogu aktiboki lan egin dezala, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, MINURSOk bere eginkizunak Mendebaldeko Saharan giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta babestera ere zabal ditzan.

**Azkenik, euskal gizartearen zereginari dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:**

**ESKERRAK** eman nahi dizkiegu Saharar Herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunez egun lan egiten duten elkarte eta kolektibo solidario eta sozialei, horien helburu bakarra Saharako herri anaiarentzat etorkizun aske bat lortzea baita.

**AITORTZEN DUGU** haurrei bideratutako "oporrak bakean" harrera-programaren funtsezko garrantzia, Saharako eta Euskal Herriko familien arteko elkartasunaren eta maitasun- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusia.

Adierazpen instituzional hau ondorengoei bidaltzea **proposatzen dizuegu**:

- Nazio Batuen idazkari nagusia
- Genevako Giza Eskubideen Kontseilua
- Europako Batzordea
- Espainiako Gobernua
- Espainiako Errege Etxea
- Fronte Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritza
- Marokoko Gobernua"

Hori ikusita udalbatzak, aho batez, mozioa onartu du.

## ZORTZIGARREN GAIA

## "M8ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNERAKO" EH BILDUk eta EAJ/PNVk AURKEZTUTAKO MOZIOAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

## EH-BILDUk aurkeztutako mozioa:

"Urteetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da prinzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea, erreprodukzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizibaldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzeraino. Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezkoa da instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta, gure ordezkaritzari erantzunez, herrialde honetako herritar guztiak –guzti-guztiak, salbuespenik gabe- hobeto bizi daitezen gure esku dagoen guztia egin dezagun. Ez digute eskatzen argazki gehiago egitea eta asmo-adierazpen soilak adostea, ezta desparekotasunen sustraiei heltzen ez dieten makillaje-politikak planteatzea ere: aitzitik, eskatzen digute guztionak diren baliabideak erabil ditzagun emakumeen eta gizonen artean dauden sakoneko desparekotasunei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arbera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez.

Premiazko egoera horren aurrean, erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerrietako pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde. Eta konpromiso hori har dezakegu, bakar-bakarrik, zeharo demokratikoak diren prozesuak planteatzen baditugu, non instituzioetatik "obeditzen gobernatuko dugun", emakume zapatisten hitzak erabiliz. Eta bakar-bakarrik lortuko ditugu gure bizitzekin zerikusia duten erabaki guztiak bizi garen tokian hartzen baditugu, gure lurraldeetan, gure herrialdean; hau da, subirano izan bagaitezke eta gure erabakitzeko eskubidea baliatzeko moduan bagaude.

Euskal herritar guztien erabakiak errespetatuko dituen esparru politiko eta instituzional bat eskatzeko eta eraikitzeko lanean jarraitzen dugun bitartean, subiranotasun feminista noranzko ugariko bide baten antzera agertzen da, emakume guztien askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko prozesu baten antzera, non egunero-egunero definituko eta gauzatuko dugun gure burua gobernatzeko zer egin nahi dugun eta gure herrialdearentzat zer bizi-baldintza nahi ditugun, guztiontzat, salbuespenik gabe, eta belaunaldi gazteenen etorkizuna hipotekatu gabe. Beharrezkoa da maila instituzional guztietatik lan egitea, koordinatuta eta ikuspegi subiranista zabal batekin, eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztietan eskubide eta askatasunak zabaltzearren.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztietako politika feministekin, azpimarra berezia jarriz egoera zaurgarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.

Horregatik guztiagatik, Irurako Udalak honako hau erabaki du:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:

- Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatuz.
- Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
- Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.
- Genero ikuspegi batetik udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea eta errealitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste, ondokoak jasoz:
  - Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua ematen den baldintzak eta lan baldintzak duintzeko zuzenduriko neurriak proposatzea eta abiatzea.
  - Familian egiten diren zaintzen analisia (ume eta mendekotasuna duten pertsonena), gabeziak, bete gabeko beharrak eta hobetu beharrekoak identifikatuz eta aurre egiteko neurriak abiatuz, kasu:
    - Zaintzen beharrei erantzuteko udal espazioak egokitzea.
    - Zaintzarako pertsonen kontratazioaren gainean laguntza ematea.

- Zaintza behar edo eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak erraztea.
- Nagusiki emakumeek egindako zaintza lanei balorea emateko sensibilizazio jarduerak bultzatzea, baita gizonek erantzunkidetasunaren gainean kontzientzia hartzeko jarduerak ere.
- Zaintza rolen gaineko emakumeentzako ahalduntze jarduerak abiatzea.
- Gazteei zuzendutako rol berdinzaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea, ahalduntze ikuspegi batetik.

2. Identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz."

Hori ikusita, Udalbatzak, 5 boto alde (EH Bildu) eta 4 boto abstentzio (EAJ/PNV) onartu du.

## EAJ/PNVk aurkeztutako mozioa:

**"M8ko Adierazpen Instituzionalaren eredua Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta**
**EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.**
1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturan, eta gizarteak berdintasun-eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.
Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.
Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzeko borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarrizko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria.

Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturan parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Irurako Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituena tokiko bizitzan**, honako neurri hauek abian jarririk.

Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari atxikitzea, eta Gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea bere lurraldean.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerri batzuekin elkartuta.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.
- Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea edota eguneratzea.
- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.
- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduntzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin Berdinsarea – bat egiteko urratsak ematea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuek elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren karietara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

**Modelo de Declaración Institucional del 8M con motivo del Día Internacional de las Mujeres**
**LAS MOVILIZACIONES DE LAS MUJERES. El poder de las mujeres que transforma el mundo**

El 8 de marzo fue instaurado en 1952 como Día Internacional de la Mujer por la Asamblea General de Naciones Unidas (ONU). El 8M conmemora las "huelgas" de las mujeres, que a lo largo de la Historia han reivindicado sus derechos laborales, económicos, políticos y sociales. Las luchas han ido conquistando cambios legales, sociales y culturales que han hecho avanzar las sociedades hacia mayores cotas de igualdad y democracia.
Sin embargo, el tiempo de las luchas de las mujeres no ha terminado. En todo el mundo y en nuestras comunidades locales presisten desigualdades y discriminaciones hacia las mujeres por el hecho de serlo. Esta discriminación se entrecruza con las discriminaciones de clase, etnia, edad, cultura, convicciones, estatus migratorio, orientación sexual, identidad de género, o capacidades, entre otras.
Cuando se cumplen 25 años desde la Plataforma de Acción Beijing, una nueva generación se une en la lucha para imaginar economías, sociedades y sistemas politicos que defiendan los derechos humanos y logren la igualdad de género, sin dejar a nadie atrás. Este movimiento mundial entiende que la igualdad entre los géneros no es solo un derecho humano fundamental, sino la base necesaria para conseguir un mundo pacífico, próspero y sostenible tal y como se recoge en los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

Es tiempo de que **proclamemos la igualdad como un único mensaje de manera conjunta por parte de toda la sociedad.**

Las luchas de las mujeres y las movilizaciones en las calles nos interpelan a las instituciones hacia un ejercicio **de compromiso** firme para

- transformar las relaciones de género en la vida de nuestros municipios y de nuestras administraciones;
- erradicar todas las formas de violencia contra las mujeres y reparar a las víctimas de esa violencia estructural;
- construir condiciones y oportunidades para la participación económica, social, política y cultural de las mujeres de todas las condiciones en la vida local;
- luchar contra todas las formas de discriminación;
- diseñar organizaciones sociales corresponsables que pongan las vidas en el centro.

Los gobiernos locales vascos estamos llamados a diseñar y getionar políticas que hagan reales estos compromisos en nuestros pueblos y ciudades, por lo que el Ayuntamiento de Irura expresa su **firme compromiso para contribuir a la construcción de una sociedad igualitaria, inclusiva y que garantice los derechos y la participación de todas las personas en la vida local**, poniendo en marcha las siguientes medidas…

Posibles medidas para avanzar en el compromiso con la igualdad en el ámbito local:

- Analizar sistemáticamente las condiciones y situaciones de las mujeres del municipio en el acceso a todos los recursos, bienes y servicios, así como la participación en la vida local, para identificar y corregir las desigualdades.
- Adherirse a la Carta Europea para Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, y aplicar en su territorio los compromisos definidos en la Carta.
- Dar pasos para dotarse de una estructura estable con personal y recursos suficientes para el impulso de las políticas locales de igualdad, a nivel local o en agrupación con otros municipios.
- Desarrollar el Plan de Acción local de igualdad de mujeres y hombres, evaluar su impacto y dar cuenta de los resultados.
- Articular progresivamente la normativa local para el desarrollo de las políticas de igualdad y garantizar la incorporación de la perspectiva de género en toda la actividad municipal.
- Desarrollar y/o actualizar el Protocolo de Coordinación Local para la atención y prevención de la violencia machista.
- Avanzar en la aplicación del principio de reparación de víctimas de la violencia machista en las actuaciones locales.
- Desarrollar progresivamente la evaluación del impacto de género de las normas, programas y servicios municipales.
- Facilitar espacios y recursos para desarrollar programas e iniciativas para el empoderamiento de las mujeres del municipio.
- Articular espacios de interlocución permanente con las organizaciones de mujeres y feministas a nivel local para diseñar y evaluar las políticas locales para la igualdad y contra la violencia machista.
- Dar pasos para unirse a la Red de municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres-Berdinsarea-cuyo propósito es sumar esfuerzos y actuar conjuntamente desde los gobiernos locales para impulsar, fortalecer, coordinar y evaluar políticas, programas y sercicios a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.

Al fin, este Ayuntamiento hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas para el próximo 8 de marzo por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres."

Udalbatzak, aho batez, onartu du mozio hau.

## BEDERATZIGARREN GAIA

## IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Idazkari kontu-hartzaileak 2019ko 4º hiru hilabetean ekitaldian ordaintzeko batez besteko epeari buruzko txostena jakinarazi du.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## HAMARGARREN GAIA

## GALDE -ERREGUAK.

a) Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du dekretu batean onartzen direla arkitekto baten gastuak, udaletxe berritzeko proiektuari dagozkienak eta jakin nahi dute ea zer egitasmo daukan udalak.

Alkateak erantzun du proiektuari buruz eskatu zaizkion aukera batzuk prestatzea parte-hartze prozesua eta egin duela eta orain parte-hartze prozesua egin nahi dela eta horretarako kontratu dela Elhuyar Elkartea, laguntzeko.
Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du, bere taldea aldez aurretik jakinaren gainean izatea proiektu hori buruz.
Alkateak erantzun du hasi aurretik bilerak egingo direla beste udal taldearekin, baina orain ez dela ezer egin.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA IDAZKARIA